PRAKTIKA EGUNETARAKO ARGIBIDEAK 3-6 ASTEAK
MARKETIN KASUA

Irakaslea: Julen Izagirre
julen.izaguirre@ehu.eus

3 eta 6. asteen artean burutuko dugun praktika enpresa baten marketin planteamendua izango da. Horretarako, batez ere 5. gaiko (merkataritza) edukiak erabiliko dira, baina baita 1. gaikoak (ingurunea) eta 2.ekoak (helburuak) ere.
Lanak puntu 1eko balioa izango du azken kalifikazioarengan (ikus irakas-gida funtzionamendua ulertzeko).

Lana taldeka burutuko da (3-5 pertsona arteko taldeak), eta eGela bitartez entregatuko da urriak 27a baino lehen.

Talde bakoitzak gertuko enpresa bat aukeratu beharko du (benetakoa edo asmatutakoa) lana burutzeko.

Hurrengo praktika saioetan taldeek lana garatzeko denbora izango dute, irakaslearen ikuskaritzapean. Gutxi gora behera, lanaren planifikazioa ondorengoa izan daiteke (talde bakoitzaren ardura da denbora eta edukiak antolatzea):

KRONOGRAMA

IRAILAK 26	URRIAK 4	URRIAK 11	URRIAK 18
Aurkezpena Taldeak osatu (3-5 kide) Enpresa pentsatu	Talde eta enpresa fitxa entregatu Enpresaren ingurunea landu Helburuak finkatu	Estrategiak garatu (segmentazioa + posizionamendua)	Estrategiak amaitu
ZUEN KONTURA: DOKUMENTUA AMAITU, FORMA EMAN (SARRERA, ONDORIOAK...) EGELAREN BITARTEZ ENTREGATU: AZKEN DATA: URRIAK 27, OSTIRALA (BARNE)			

EDUKIAK

A.- SARRERA:	Lanaren helburua, egitura, enpresaren aukeraketaren arrazoia...
B.- ANALISIA:	Enpresaren ezaugarrien azalpena Enpresaren ingurunea
C.- HELBURUAK:	Marketin helburuak
D.- ESTRATEGIAK:	Segmentazioa eta posizionamendua
E.- EKINTZAK:	Produktu, prezio, banakuntza eta komunikazio erabakiak
F.- ONDORIOAK:	Enpresaren egoeraren eta erronken laburbiltzea Lanaren balorazio pertsonala (gaiaren interesa, zailtasunak, prozesuaren balorazioa...)

-